

**HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOAREN 30. URTEURRENA
30 ANIVERSARIO CONVENCION SOBRE LOS DERECHOS DEL NIÑO**

2019-11-20 Vitoria-Gasteiz 20-11-2019

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

UNICEF Euskadi presidente jauna, Arartekoa, Emakunde-ren zuzendaria, eta gaur batez ere, Sailburuekin batera eta goi-kargudun guztiokin batera, hemen zareten Ikastetxeetako bai ordezkari eta baita ikasle guztioi, izan ere Maestra Isabel Gallego Gorria (Bilbao), Berri Otxoa (Bilbao), San Félix (Ortuella), San Patricio Colegio Inglés (Donostia), Ekintza Ikastola (Donostia), La Asunción Ikastetxea (Donostia) eta Hogar San Jose Ikastetxea (Gasteiz) ongi etorriak egun honetan.

Ospakizun hirukoitzeko eguna da gaurkoa:

- Duela 60 urte Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsala adostu zen;
- Duela 30 urte Haurren Eskubideen Konbentzioa onartu zen; eta
- Duela 10 urte jarri zen martxan “Zeuk Esan” zerbitzua.

Gaur **zuen iritziak eta proposamenak** entzun ditugu. Pentsatu nahi dugula nola jarraitu behar dugun aurrera egiten, zer planteatu behar dugun 10, 30 eta 60 urte barru hobetzen jarraitzeko.

Os hemos escuchado para conocer vuestras preocupaciones y opiniones. Hemos escuchado vuestras **críticas, ideas y propuestas de nuevas iniciativas**.

Hoy recordamos juntos los 60 años de la Declaración Universal de los Derechos del Niño; 30 años de la Convención de los Derechos del Niño; y 10 años del servicio Zeuk esan.

Hemos escuchado vuestras opiniones porque queremos pensar **cómo podemos seguir avanzando**, qué debemos plantear ahora para seguir mejorando dentro de 10, 30 y 60 años.

Conocemos el pasado y cuando pensamos en el futuro hay tres legados que hemos recibido y que debemos mantener: **cercanía, consenso y compromiso**.

Primero cercanía.

Las iniciativas que pongamos en marcha debemos diseñarlas desde la cercanía a los niños y niñas, a la infancia, a la adolescencia. Debemos ejecutarlas desde la complicidad con las organizaciones del tercer sector que

tienen experiencia en este campo. Por eso es tan importante **la participación de UNICEF.**

Lehenengoa hurbiltasuna.

Bigarrena adostasuna.

Adierazpena eta Konbentzioa nazioarteko adostasun zabala lortzeagatik nabarmendu diren bi ekimen izan dira. Inork ez ditu zalantzan jartzen Eskubide horiek; eta pozten gaitu jakiteak, puntu honetan, **ados jartzen direla munduko herrialde guztiak.**

Cercanía, Consenso y tercero Compromiso.

Os hemos escuchado y ahora nos corresponde responder. Demostrar el compromiso con hechos, con iniciativas que permitan **hacer efectivos los Derechos** a la vida, la salud, la educación, el juego, la vida familiar, la protección frente a la violencia y la discriminación. Derechos que hoy hemos **recordado y actualizado.**

Gure konpromisoa da ekimen berriak abian jartzen jarraitzea.

Bideoa eta zuen hitzak oroigarri bat dira guretzat. Abian jartzen ditugun ekimenak haurengandik hurbil diseinatu behar ditugu. Horregatik da hain garrantzitsua UNICEFen parte-hartzea gaurko honetan. Hurbiltasun hori, adostasun hori eta konpromiso hori **mantentzen jarraituko dugu.**

El encuentro que hemos mantenido, el video y vuestras palabras son un recordatorio para nosotras y nosotros. Hemos leído juntos los Principios de los Derechos de los Niños y las Niñas, aprobados hace 60 años y los Derechos de los Niños y las Niñas de la Convención de la que se cumplen 30 años y que siguen vigentes.

Diez minutos antes de venir a este acto me ha surgido una duda terrible. Si aprovechar este acto ante vosotros y vosotras para hacer la siguiente reflexión que voy a participar, o si no hacerla pensando en que por hacerla podría incurrir en algún tipo de manipulación del acto. Pero creo que a la hora de reflexionar sobre lo que tenemos que seguir mejorando (porque no todos compartimos que los niños y niñas, la infancia y la adolescencia tenéis unos derechos, no en todos los territorios se comparte esta realidad de los principios y de los derechos) ante esa duda surgida antes de comenzar este acto, al final he optado por decir lo siguiente.

Hoy hemos conocido que un partido político populista, radical, con implantación en el Estado español se ha desmarcado de la Convención de los Derechos del niño de Naciones Unidas. Vox se desmarca de la Convención de los Derechos del niño de Naciones Unidas. Quiere expulsar a los menores inmigrantes aunque lo impida el Tratado de Naciones Unidas.

Esta es la realidad que también tenemos entre nosotras y nosotros. Pretenden retroceder a un modelo de sociedad supremacista, sin tener en cuenta, no ya solo los Derechos del niño, de la niña, de la infancia, de la adolescencia, sino incluso los Derechos Humanos. Hay posicionamientos que no podemos permitir. Tenemos que seguir avanzando juntas, juntos.

Nuestra aspiración es que Euskadi sea **un modelo de referencia en el mundo** por la cercanía, el consenso y el compromiso con los Derechos de la infancia. En vuestra mano, también, va a estar la responsabilidad, en el presente y en futuro, de conseguir que **nuestro planeta sea más justo y humano**.

Euskadin aurrera egiten jarraitu behar dugu. Gaur ezagutu dugunez, Espainiako alderdi politiko batek Nazio Batuen Haurren Eskubideen Konbentziotik irtetzeko proposamena egin du. Hau ezin dugu onartu, aurrera egin behar dugu **eskubideak indartzen eta zabaltzen**, denok batera.

Hori da gaur **partekatzen dugun xedea**. Gaur egun handia izan behar du. Zuen eskubideak aldarrikatuz, zuen eskubideen alde babesa emanaz, zuen eskubideen alde konpromiso hartuz, hurbiltasunetik, adostasunetik eta erantzunkisunetik.

Eskerrik asko zuen parte hartzeagatik eta laguntzagatik!